



BARREN  
TOKIKOM



**Egunero delako  
martxoak 8**

*Jon Arrizabalaga*

Gernika. Lidergo Ekintzailea  
eta Berrikuntza, 3. maila.



## GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**GOIERRI · MARTXOAK 4**

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ORONA IDEO · MARTXOAK 11**

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE · APIRILAK 27**

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**BIDASOA · MARTXOAK 4**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · MARTXOAK 9**

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**OÑATI · MARTXOAK 11**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZA · APIRILAK 6**

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · APIRILAK 6**

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MARTXOAK 18**

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO  
ZARELA  
JAKINARAZI!



AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista

## Alergiak

tatea izateari esaten zaio alergia. Gorputzeko erre-akzio anormal hori eragiten duten substantzia horiei alergen-ogeno esaten diegu, eta modu askotakoak dira. Alergeno horiek irentsi, arnastu edo ukituz gero, jar-tzen da martxan immunitate-sistemaren erreakzio hori.

Sintomak?

Hainbat modutakoak dira. Alergia ematen digunaren arabera izango dira sintomak. Sintoma arruntenak honakoak dira: rinitisa, asma, azaleko arazoak (eczemak), nekea, buruko mina (migraña), depresioa, arritmiak, beherakoa (diarrea), doministikuak, su-durra ixtea, mukiak, eztarriko pikorra,

azaleko azkura, erreuma brotea...

Alergiak sendatzen dira? Erantzun zaileko galdera da hori; esan dezake-guna da batzuk baietz eta beste ba-tzuk ezetz. Medikuntza tradizional-ean diote alerkiak ez direla sendatzen, eta kasu batzuetan, sintomak arintzeko bo-tikak hartzea aholkatzen dute. Erabil-tzen dituztenak honako hauek izaten dira: antimikotikoak, antinflamatorioak, kortikoideak, bronkodilatadoreak, txer-toak...

Alergiak tratatzeko modua honako hauxe da: alergia zerk ematen digun aztertu, tratamendua ipini belarrak era-biliz, bach lorak, konplementu natu-rak... kirola eta erlajazioa landu, baita dietan aldaketak egin ere.

**G**aur egun, alergia oso gaixo-tasun ohikoa da. Gero eta jende gehiagok sufritzen ditu alerkiak, bai umeek eta bai nagusiek ere, eta oso gai zabala da hau, aler-gia mota asko daudelako.

Zer da alergia? Onik egiten ez digun eta kaltegarritzat jotzen den substantzia batekiko ezohiko sentsibili-

*“Onik egiten ez digun eta kaltegarritzat jotzen den substantzia batetiko ezohiko sentsibilitatea izateari esaten zaio alergia”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zo-zoak Beleari eta eskuiltzak ataletan adiera-zitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-sola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazal-degi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





## Maria Isabel Gorrotxategi Ezeiza

2017ko otsailaren 25ean hil zen, 68 urte zituela.  
Irteera meza martxoaren 12an, domekan, izango da  
Mendaroko Garagartzako elizan, 12:00etan.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Txomin Ondarre Amuategui

2017ko otsailaren 27an hil zen, 87 urte zituela.

***Maiteak alboan geundela,  
merezi zenuen bezala,  
mundutik zoaz horrela,  
ezingo dugu ahaztu,  
zure irribarrearen epela.***

Sendiak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Antonio Herrero Estarta

2017ko otsailaren 22an hil zen, 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRAK EMANEZ

Joan zen abenduaren 30ean gogoratu genuen espreski Kalegoengo San Bartolome parroki elizan lehen meza eman zen eguna. 1716ko abenduaren 30ean izan zen.

Urte guztian zehar ekitaldi ugari egin genituen 300. urteurren hori dela-eta: hitzaldiak, bisita gidatuak, mahainguruak, kontzertuak, erakusketa, etab.

Gainera, San Bartolome parrokiako lehen mezaren 300. urteurrenarekin batera, San Frantzisko komentuari 500. urteurrena ere gogoratu genuen. Hori guztia dela-eta, argitaratu da Javier Elorza eta Pello Arrietak idatzitako idazlan ederra.

300 urte hauen oroimena egitean, San Bartolome Parrokiaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu:

- Lehenik, XVII. eta XVIII. mendeko urte haietan gure parroki eliza eraikitzen aritu ziren guztiei. Gogoan ditugu benetan gure aurreko elgoibartar haiek. Baliabide motz eta mugatuekin lan bikaina eta dotorea utzi ziguten ondorengo belaunaldiei.

- Bigarrenagoz, eskertu nahi ditugu baita ere, azken belaunaldietan parroki eliza eraberritzeko eta errestituzioaren lanean aritu diren profesional eta boluntario guztiak. Horietako batzuk, jada hilak, ez ditugu gaur egun gure artean.

- Hirugarren lekuan, eskerrak eman nahi dizkiegu gure eliza hau ondare historiko-artistiko gisa mantentzeko laguntzen diguten erakundeei. Ezin ditugu ahaztu baita ere laguntzen diguten gure herriko enpresa, elkarte eta beste erakundeak ere.

- Laugarren lekuan, gure esker ona mendeurren honetako antolaketan lagundu digutenei: hainbat lagun eta boluntario; isileko lanean egun eta ordu askotan aritu direnak.

- Herriko enpresa eta erakunde: Udala, Danobat, S.Coop., Alcorta For-

ging Group, S.A. eta Txarriduna, S.L.

- Kultur eta kirol elkarteak: Parrokiako Abesbatza, EMUDAFE, Inazio Bereziartua Musika Eskola, Morkaiko M.E., Altzolarren Dorretxea Filatelia Elkarte, Udala Musika Banda, Udala Txistulari Taldea, Haritz Euskal Dantzari Taldea.

- Komunikabideei eta herriko korrespondentzari.

- Parrokiako pastoral agenteak.

- Eta azkenik, gure esker on berezi eta beroena Elgoibarko herritar guztiei, egin diren ekitaldi guztiei abegi eta harrera ona eman diezuelako.

Mila esker guztioi!

### Kalegoengo San Bartolome Parrokiaren 300 urteurrenaren batzordea

### ► S.O.S. KATUEDER

KatuEder gara, irabazteko asmorik gabeko elkarte, eta Elgoibarko katu kaletarren ongizateaz arduratzen gara. Gure proiektua udaletxean dago azarotik. "CES" sistema abiaraztea nahi dugu kaleko katuekin (harrapatzea, antzutea, askatzea), eta hortarako baliabideak behar ditugu: esterilizazioaren ondoren katuek edukitzeko leku bat edota baldintza korpilatsuetan erditzen duten katemeak zaindu ahal izateko, koloniak aurkitzen diren tokian aterpeak eta ganbelak jartzeko baimenak... Gure proiektua udaleko alderdi politikoei banatu genien Udalaren bitartez, eta Podemos-Ahal Dugu Elgoibarko eskerrak eman nahi dizkiogu bere interesagatik. Gainerakoek ez dute erantzuteko lanik hartu. Denbora honetan, gutxienez lau edo bost kalekatu "galdu" ditugu, guk dakigunez. Gero eta gehiago gara animalien ongizateaz arduratutako pertsonak eta erakundeak ez daude gizar-tearen sentsibilizaziora egokituta. Horregatik, Gipuzkoan eta beste lurralde batzuetan elkarten mugimendua handituz doa, eta gurea bezalako taldeak osatzen

ari dira, Administrazioak egiten ez duen lana osatzeko. Orain arte bezala, gure poltsikotik ordaintzen jarraituko dugu katuen elikadura, esterilizazioak, albaitarien gastuak..., inolako laguntza ekonomikorik ez dugulako. Gure ingurunean kontzientzia sortzeko jaiotze gara. Katuak maite ditugu. Majikoak dira. Beraien ahotsa izan nahi dugu. Zuen kolaborazioa eskatzen dugu: harrera-etxeak behar ditugu, kalekatuentzat pensua edo lagundu gaitza-keen edozein beste gauza, lokal bat edo aterpea eman ahal izateko txabola bat eraikitzeko lursail bat... Jada laguntza eman digutenei edo interesa agertu duzuenoi, eskerrik asko. Zuekin lana egingarriagoa da. Baina, batez ere, behar zaituztegu. Gure alde ager zaitetzela. Gure kalekatu maiteen proiektua delako, KatuEder proiektuaren alde ager zaitetzela. Beraien ahotsa izan nahi dugu. Eskerrik asko.

### KatuEder

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biroak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatze edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datoren eskutitz argitaratuko.

## Joseba Zinkunegi eta Iker Jausoro hil ziren domekan Ezkarain, San Lorenzo menditik behera amilduta

**D**omeka eguerdian zabaldu zuen notizia EFE berri-agentziak: mendizale eibartar bat hil zela eta Gasteizko bigarren bat larri zauritu Errioxako Valdezaray eski estaziotik gertu. Informazioa nahasia zen, baina, artean. Zenbait informazio iturrik biak jotzen zituzten hilda, baina konfirmazioa geroago etorri zen. Hala ere, Errioxako Gobernuak bigarren mendizalearen heriotza konfirmatzerako, Elgoibarren zabaldua zen dolua. Joseba Zinkunegi (Eibar, 1966) eta Iker Jausoro (Oñati, 1968) ziren hildako mendizaleak, biak ere ezagunak herrian.

Errioxako Gobernuaren arabera, 13:40ak aldera gertatu zen ezbeharra, Valdezarayko eski estaziotik gertu. Mendian behera amiltzen ikusi zituen eskia-tzaile batek eman zuen abisua SOS Riojara. Antza, elurretako erraketekin trekking egiten ari ziren Zinkunegi eta Jausoro San Lorenzo mendiaren (2.2.71 metro) ipar aurpegian, Colocobia izenez ezagunagoa den lekuan, elurretan laban egin eta mendian behera eskiatzeko pistetaino amildu zirenean. 300 bat metroko jausiera izan zen, haitz artean behera, eta Zinkunegi hantxe hil zen. Iker Jausoro, berriz, bizirik jaitsi zuten salbamendu taldekoek eski estazioraino, baina bihotza bizkortzeko egin ahalak egin zituzten arren, bi orduren buruan hil zen. Etxekoekin eta lagunekin asteburu pasa joanak ziren Ezkaraira, kuadrillan.

### Dolua

Albistearen biharamunean ez zen beste gairik Elgoibarren. Biak ala biak ezagunak ziren oso herrian. Joseba Zinkunegi *Zinku* kazetaria zen ogibidez, eta ezker abertzaleko komunikazio ardura-duna izan zen urte askoan, Euskal Herriko Alderdi Komunistakoa (EHAK) eta Sortukoa, besteak beste. 2007ko urrian Espainiako Poliziak Seguran Batasunaren



*Iker Jausoro eta Joseba Zinkunegi.*

kontra hasitako operazioaren harira atxilotuetako bat izan zen. Batasuneko 23 kide atxilotu zituzten orduan, baina operazio hark jarraipena izan zuen gero. Joseba Zinkunegi, esaterako, 2008ko otsailaren 11n atxilotu zuten Batasuna, EHAK eta EAE-ANVko beste hamahiru lagunekin batera, eta bi urte preso egon ostean, 2010eko otsailan laga zuten libre 50.000 euroko bermea ordaindu ostean eta politikan jarduteko debekuekin. Kartzelatik irten berritan, *Jon Anza. ¿El último crimen de estado?* izeneko liburua kale-ratu zuen, Juan Jose Petrikorenarekin batera, 2011n. Jon Anza ETAko militantearen biografia eta haren desagerztearen eta heriotzaren inguruko datuak eta galderak bildu zituzten liburuan.

Ezker abertzaleari lotua agertu da beti Zinkunegi eta sare sozialetan oihartzun handia izan du haren heriotzak. Asko izan dira egun hauetan samina agertu duten alderdikide eta lagunak. "Militante saiatua" eta pertsona alaia zela nabarmendu dute ezagutu zutenek.

Iker Jausorok IMHn lan egiten zuen 2004az geroztik. Ekonomia Zientzietan lizentziatua zen, eta IMHn hasi aurretik hainbat enpresetan ibilia zen lanean, kudeaketa alorrean. Micropyme edo en-

presa txiki eta ertainen munduaz eta haien kudeaketaz ezagutza handia zuen IMHko lankideen esanetan, eta horrek Giza Baliabideen aholkularitzan espezializatzerako eraman zuen. IMHn bertan horretan ziharduen azken urteotan, baina irakasle lanetan ere ibilia zen ingeniari-eta eskolan eta baita enpresetan formazio-saiok eskaintzen ere. Baina beste ezeren gaineratik, pertsona "hurbilekoa, alaia, aktiboa eta saiatua" zela gogoratu du Edurne Bilbao lankideak, "konfiantza handia ematen zuena, langilea oso". "Oso estimatua" zuten lankideek. "Beti irribarrearekin eta aurrera egiteko gogoz. Oso parte-hartzailea zen, eta balore horiek zabaltzen ahalgindu da beti bere bueltan". Albistea jakin bezain laster, dolu-adierazpena egin zuen publiko IMHk. Hildakoengatik samina agertu eta babesa eskaini zien haien etxeko eta gertukoei. Kirol munduan ere ezaguna zen Jausoro. Harreman estua izan zuen herriko mendizale eta txirrindulari zaleekin eta baita, besteak beste, C.D. Elgoibarrekin ere. Futbol Eskolako entrenatzaileetarikoa bat zen, eta dolu modura, Klubak bertan behera laga ditu mendeurrenaren harira gaurko antolatutako zituen ekintzak.

## 1.300.000 euro erabiliko ditu Udalak Sigma auzoa urbanizatzeko



Sigma auzoko bizilagunek dituzten irisgarritasun arazoei irtenbidea emateko asmoz, auzune osoa urbanizatu eta sarbideak hobetzeko proiektua idazteko lehiaketa publikoa egin du Udalak, eta Injelan enpresak irabazi du. Proiektua gauzatu ahal izateko 1,35 milioi euro beharko dituztela kalkulatu du Udalak, eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotziak esan du kanpo finantziarioa beharrezkoa izango dela. Bien bitartean, urbanizaziorako ildo nagusiak finkatu dituzte. Olasoko biribilgunea izango litzateke auzora sartu eta irteteko bide bakarra, eta bertatik hasiko litzateke auzoa gurutzatuko lukeen bidea. Bide horrek, Sigmako etxeen gainaldetik igaro ostean, Aizpizkar kalearekin bat egingo luke, Idotorbe bailarako baserrietara daraman bidearekin, alegia. Era berean, Eulogio Estarta kalea eta aparkalekua lotzeko bidea ere egingo lukete, Eulogio Estarta elkartearen eta frontoiaren aurretik, hain zuzen ere. Horretarako, besteak beste, gaur egun frontoiaren aurrean dagoen horma botako lukete.

Berrurbanizazioarekin batera, Sukia eraikuntza enpresak babes ofizialeko zein merkatu libreko etxebizitzak eraikitzeko asmoa du aparkalekuaren gainaldean. Babes ofizialeko 49 etxebizitzaren sustapena egingo du Sukiak hurrengo hilabeteetan, eta proposamenak izaten duen erantzunaren arabera eraikiko dituzte etxebizitzak.

## Heroinak Elgoibarren izan zuen eraginari buruzko mahai ingurua egingo dute hilaren 9an



Elgoibarko Gazte Asanbladak eta Errotatxo elkarteak antolatuta, Justo Arriolak *A los pies del caballo* liburuaren aurkeztuko du datorren egunean. Liburuak sakon aztertzen du heroinak Elgoibarren, Euskal Herrian eta Espainian izan zuen eragina, baina kasu honetan, Elgoibarko kasua izango dute aztergai, bereziki, gaur egungo gazteek ezagutu dezaten 80ko hamarkadako errealitatea zein izan zen. Hori dela eta, liburuaren aurkezpenarekin batera, garai hura gertutik bizi izan zuten hainbat elgoibartarrekin mahai ingurua egingo dute. 19:00etan izango da, Kultur Etxean.

## 'Espeleologia Italian eta saguzar bila Bulgariara' hitzaldia, martxoaren 8an

Mendia eta zientzia uztartzeko hitzaldi zikloaren barruan, *Espeleologia Italian eta saguzar bila Bulgariara* hitzaldi sorta eskainiko du Morkaikok eguaztenean. Hasteko, *Kobazuloak, iluntasuneko ikerketa baten istorioa* hitzaldia eskainiko du Martin Arriolabengoa geologoa. 2015etik doktorea da, Deba bailararen bilakaera geologikoari buruzko tesiarrekin. Horrez gain, espeleologoa ere bada Aloña Mendi Espeleologia Taldean. Segidan, *Saguzarren gorotz pilaketak: Europako iraganeko naturaren liburutegiak* solasaldia eskainiko dute Antton Alberdi eta Eñaut Izagirre elgoibartarrek. Antton biologoa da. Saguzarren ikerketan espezializatu zen EHU doktoretza egiten zuen bitartean, eta egun, Kopnehageko Unibertsitateko ikerlaria da. Eñaut berriz, Anttonek zuzentzen duen proiektuko landa-lan eta laginketetako laguntzailea da. Hitzaldia 19:00etan izango da, Kultur Etxean.

## Txarri-boda egingo dute bihar Idotorben

Idotorbeko San Pedro elkarteko kideek txarri-boda antolatu dute biharko. Txorizoa, odolkiak, sahieskiak, solomoa... denetik egongo da aukeran. Bazkariaren prezioa 25 eurokoa da. Interesatuek [sanpedroelkar-tea@hotmail.com](mailto:sanpedroelkar-tea@hotmail.com) helbidean eman behar dute izena.

## Oliba-olioa eta kontserbak erosteko kanpaina jarri du martxan Errigorak

Euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan, Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra eta kontserba-loteak erosteko kanpaina jarri du martxan Errigorak. Martxoaren 14ra arte dago eskaerak egiteko epea. Informazio gehiago eta eskaerak egiteko [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunea kontsultatu.





# INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideo eta argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)



















**Emakumeen Kontseilua.** Ezkerretik hasita: Emakumeen Kontseiluko idazkari Elena Alonso, Haizea Elkarteko presidente Miren Pagoaga, Institutuko Guraso Elkarteko Silvia Gabiola; Laura Daquinta; Institutuko Guraso Elkarteko Paqui Lucha; Ainhoa Mateo Kalamua Guraso Elkartekoa; Maite Unzueta Haizeakoa; eta Bittori Zabala Berdintasun saileko zinegotzia eta Emakumeen Kontseiluko presidentea. Argazkian Rahma Zarqal eta Esther Alonso falta dira, Loreak taldeko presidentea eta Kalamua Guraso Elkarteko ordezkaria hurrenez hurren.

## “Gazte jendeak jarrera aktiboagoa agertzen du indarkeriaren kontra”



Hirugarren Berdintasun Plana argitaratu berri du Elgoibarko Udalak, eta plan hori aitzakia hartuta, berdintasunaren aldeko borrokan egindakoez eta egin beharrekoez jardun gara Elena Alonso Berdintasun teknikariarekin. Lorpen handiak egin direla esan du Alonsok, bereziki kontzientziazioaren alorrean, baina nabarmendu du matxismoa oso errotua dagoela eta denon erantzukizuna dela kontra egitea.

- AINARA ARGOITIA -

### ▶ ELENA ALONSO BERDINTASUN SAILEKO TEKNIKARIA

#### ◆ Elgoibarko III. Berdintasun Plana ondu berri duzue. Non gaude, eta nora iritsi nahi duzue?

Bistan da aurrera egin dugula, ezer ez egotetik gaur arte gauza asko lortu direlako. Emakumeen Kontseilua, Jabetza Eskola, indarkeria matxistaren kontrako protokoloa...nik uste, horiek izan direla lorpen handienak, baina hau prozesu bizia da, etengabeko lanketa eskatzen duena, eta ez gaude geldirik egoteko. Kontuan izan behar dugu mendez mende lotu den katea etetea zaila dela. Horregatik diot

gure lana astuna dela, zaila delako emaitzak ikustea. Lau urterako plana da hau (2016-2019) eta aurreko planaren diagnostikoaren eguneratetik eta planaren ebaluaziotik sortu edo ondu da, era parte hartzailean.

#### ◆ Idatziz jaso duzue Berdintasun Plana etengabe ebaluatuko duzuela. Orain artekoek zer eman dute?

Emaitzak onak izan dira. Norbaitek pentsatuko du geure buruari tranpak egingen dizkiogula, baina ez. Zerrendatuta ditugu lorpenak: Berdintasun Saila sortu

izana bere aurrekontu propioarekin, Emakumeen Kontseilua eta Jabetza Eskola sortu izana, egin ditugun kanpainak, tokiko protokoloa martxan jartzea, udal langileak prestatzea, sail arteko prozesua, genero zeharkakotasuna bultzatzea, diru-laguntza guztietan genero ikuspegia txertatzea... Adibidez, orain, Hirigintzako diru-laguntza batean beharizan bat sartuko dugu obretan irudi sexistak saihesteko. Hornitzaileentzako mezua garbia da: zaindu irudi kontuak ere, guretzako lan egin nahi baduzue.

♦ **Emakumeen Kontseilua aipatu duzu. Zeintzuk osatzen dute, eta zein da talde honen egitekoa?**

Haizea emakume taldea, Loreak emakume migratzaileen Elgoibarko elkarte, Kalamua Guraso Elkarte, Institutuko guraso elkarte, Berdintasun Saila eta norbanako bat gaude taldean, ezinegon feminista dugun emakumeak, eta hilero batzen gara. Taldea handitzeko asmoa ere badugu, eta ari gara horretan. Aholku batzordea da Emakumeen Kontseilua; go-goeta egiten dugu, eta proposamenak ere bai. Martxoaren 8aren bueltako egitaraua ere hor sortu eta adosten dugu, eta generoari eta rolei lotuta iristen zaizkigun kexa eta abarrei ere hor erantzuten diegu. Berdintasun Plana ontzeko orduan, beraz, Emakume Kontseiluak zeresan handia izan du. Emakunde markatzen dituen lanildoak aztertzen ditugu.

♦ **Emakumeen ahalduntzea ikusten duzue aldaketarako giltza hirugarren plan honetan ere. Emakumea jartzten duzue zentroan, baina balioak aldatzeko erronkari erantzunez, gizon taldea bultzatzeko beharra ere jaso duzue.**

Bai. Gizonek ere kontzientzia hartu behar dute. Berdintasuna denontzako da onuragarria, rolen bereizketak eurei ere egiten dielako kalte, sarri ohartzen ez badira ere. Aspaldi hasi ginen gai honi bueltaka. Saiatu ginen gizon talde bat sortzen, baina inor ez zitzaigun agertu, eta orain, berriro heldu diogu gaiari. Gizonek ere badute erantzukizuna berdintasunaren gaian, hau ez delako askok uste duten moduan emakumeoi dagokigun kontua. Inplikatu nahi ditugu; ez Kontseiluan, Emakumeen Kontseilua delako gurea, baina landu behar dugu gizonak erakartzeko estrategia.

♦ **Gizonek gaur dituzten pribilegio batzuei uko egitea ezinbestekoa ikusten duzuen beraz.**

Bai, argi dago. Emakunde martxoaren 8rako sortu duen kanpainaren oinarrian ere horixe dago jasota. Aldaketa handia igarri dut nik neuk.

♦ **Bereziki zertan?**

Sentsibilizazioaren alorrean gehienbat. Udalean, adibidez, arduratuta geunden beti gizonek egin izan duten dantza batean emakumeek parte hartu behar zutelako eta ez genekielako jendeak, betiko publikoak, nola hartuko zuen, baina egin zuten dantzan emakumeek eta ez zer ezertxo ere gertatu. Iruditzen zait herritarrek helduagoak direla orain, mentalitatea aldatu dela zorionez.

♦ **Izan ere... tradizioa sakratua da.**

Bai, komeni denean, baina esan dizut: esango nuke gazte jendeak oro har baduela beste ardura bat, beste kontzientzia bat, eta hori ere borroka feministaren lorpena dela. Indarkeria matxistarekin argi ikusten da. Lehen, etxe barruko kontuak ziren horiek, etxe barruan errenditzekoak, baina orain, jendeak jarrera aktiboagoa agertzen du indarkeria kasuen kontra.

*“Lortu behar duguna da jendea konturatzea borroka honek denontzako onura dakarrela”*

♦ **Gazte jendea aipatu duzu. Azkenaldian publiko egin diren indarkeria kasuetan deigarria egiten da erasotzaileen nahiz biktimen adina.**

Bai, hori ere hala da, baina esan nahi dizudana da sasoi batetik asko handitu dela gazte kritiko eta militanten kopurua. Lehen, isilik gelditzen zirenen kopurua askoz zen handiagoa. Elgoibarren, adibidez, gazteek eurek hartu dute berdintasunaren aldeko bandera jaietan, eta etorri zaizkigu hona eskatzera. Ikastetxeetatik ere etorri zaizkigu gai honen inguruko kezkekin. Hori garai batean pentsaezina zen. Geu jaten ginen beti gaiak proposatzera, iniziatiba handiagoa har zezaten eskatzera.

♦ **Berdintasun Saileko teknikaria zara. Sarri entzun diegu zure egiteko berean diharduten hainbati instituzioetan, historikoki, oso bakarrik sentitu direla borroka honetan.**

Bai, eta historikoa izan da hori, bakar-bakarrik denen atzetik ibili behar hori, baina nik neuk, egia esan, aldaketa handia igarri dut, eta esan dezaket hemen, Elgoibarko Udalean, jarrera oso positibo duela jendeak orokorrean. Badaude zailagoak diren departamentuak, bai, baina gu elkarlanean aritzen gara, eta esango nuke sail gehienek oso barneratuta dutela berdintasunaren gaia. Gai batzuetan, ordenantzetan edo eraikuntza enprekin lotzen diren kontratuetan-eta, delikatuagoa izan daiteke hainbat baldintza ezartzea, baina bakardade hori ez dut sentitu nik Elgoibarren. Hala ere, salbuespenetik gertuago dago hau. Dena den, lege batzuek –Berdintasun Legeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Arau Foralak– izugarri erraztu digute gure egitekoa. Udal administrazioei eta elkartei betebeharrak batzuk exijitzen zaizkie. Adibidez, kirol elkarteek argi azaldu behar dute zer egin duten berdintasuna sustatzeko, eta egin duten horrek zer onura ekarriko dizkien emakumei eta gizonei. Hori lorpen handia izan da.

♦ **Talde feministetatik borondate politiko handiagoa eskatzen dute.**

Ezagutu ditugu borondate apalagoko garaiak ere, baina bai, beti egin daiteke gehiago, eta egin behar da, azkenean matxismoa oso errotuta dagoen kontua delako. Hala ere, iruditzen zait gai honetan hobe dela pausoan-pausoan egin arren, patxadaz.

♦ **Inork ez dezan esan hau lau feminista muturrekoren kontua denik?**

Kontrako jarrera ez sortzeko, bai. Berdintasunaren gaian sartzen bazara “a saco” esaten dena, kontrako efektua lortu dezakezu. Aliatuak bilatu behar ditugu. Lortu behar duguna da jendea konturatzea borroka honek denontzako onura dakarrela. Ezin dugula aurten lortu? Bueno, lotu ditzagun aliatu berriak, egin ditzagun



lagunak, datorren urterako lortu ahal izateko.

♦ **Bueno, hori bada emakumeoi aitortu izan zaigun dohai bat.**

Garatu dugun beste abilitade bat da.

♦ **Lehen ere aipatu dugu deigarria dela gazteen artean indarkeria-ereduak zein zabalduta dauden ikustea. Ikastetxeekin zer harreman daukatzue? Zer lan-keta egiten duzue?**

Urtero Elgoibar Ikastolako eta BHI Institutuko 550 bat ikasle, neska zein mutil, pasatzen dira tratu ona lantzeko tailerretatik. Prozesu bat da. DBHko lehenengo mailan hasten dira, indarkeria sexista, rola, estereotipoak, harreman afektibo-sexualak... lantzen, eta urtez urte, tailer ezberdinak egiten dituzte, euren adinera egokituta. Indarkeria sexistari aurre egiteko moduak, indarkeria sexista zer den, autodefentsa eta maskulinitate-eredua... antzeko gaiak jorratzen dituzte bi hezitzaileekin.

♦ **Rolak eta estereotipoak lantzen dira dira ikasleekin. Kontraesana dirudi gero rol eta estereotipo horiek betikotzen dituen antzez-lana – ‘Go!azen’– ekartzea herrira.**

Bai, eta guk ere eztabaidatu dugu gai horren inguruan, eta egin dugu gogoeta. Kontseilura etortzen zaigun ama batek ere ateratu gaia. Triste da telebista publiko batek halako baloreak transmititzea. Emakundek esan beharko luke zerbait.

♦ **Udalak ekarri zuen, guk ere zabaldu genuen eta asko izan dira kontsumitu dutenak. Zein zaila den batzuetan oker ikusten dugun horren aurka egitea ere.**

Bai, hala da, baina pozgarria da eztabaida sortu izana, eta kritika kaletik etorri izana. Gero eta gehiago konturatzen da jendea. Kuadrilletan beti egongo dira halako kritikei gehiegizkoak irizten diotenak, baina bestelako ahotsak ugaritzen ari dira, eta pozgarria da.

♦ **Espazio publikoari beldurra izatearen arazoiez ere hitz egin beharko genuke, beharbada, baina nolahi ere: nola dago Elgoibarko puntu beltzen kontua?**

Lehenengo planean landu genuen gai hori, herri debekatuaren mapa, eta Eskola

Publikoaren Jaia Elgoibarren ospatu genuenean ere landu zen gai hau formato txikiagoan. Bi aldi horietan identifikatu ziren puntu beltzen jarraipena egin genuen gero, eta esan dezaket gehienetan egin direla hobekuntzak: argiztapen hobea jarri, tunelak argiztatu, irisgarritasun kontuak hobetu... Sigmako bi zubiak egiteko planean ere kontuan hartu zen gai hau eta ibili ginen aztertzen. Baina, beharbada, egin genezake berriro ere, bai. Eta bai, egia da emakumeoi espazio publikoari beldurra izatea transmititzen zaigula, baina egia da, era berean, erasoak ere geuk jasaten ditugula. Indarkeria oso barneratuta dute gizonak.

*“Erronka nagusia beti da indarkeria matxista amaitzea, biktima bakar bat gehiago ez egotea”*

♦ **Maskulinitatearen ereduak.**

Bai, eta horren kontra egin behar dugu. Mekara clown bat ekarri genuen gai hau lantzeko, orientatzaileek eurek eskatuta. Clown desahalduntzailea zen, eta kurioa izan zen, baina gogor itxurakoenek erantzun zuten ondoen. Orain, martxoaren 8ko programaren barruan antzeko beste saio bat ere egingo dute Mekan. Bestalde, Institutuan eta Ikastolan ere *maskulinitate berriak* gaia lantzen ari dira Hezkidetza programaren barruan, Udalak diruz lagunduta.

♦ **Erronka nagusiak zeintzuk dira?**

Lehenengoa beti da indarkeria matxista amaitzea, biktima bakar bat gehiago ez egotea. Protokoloarekin lortu duguna da konfiantzazko sare bat izatea eta prozedura batzuk ezartzea. Hiru hilabetero batzen gara gizarte laguntzaileekin eta aditu batekin, identifikatuta dauzkagun indarkeria kasuak lantzeko eta haien jarraipena egiteko. Biktima batzuk indarkeria jasan duten emakumeen

taldera bideratzen ditugu eta beste biktima batzuei prozesu indibidualizatua eskaintzen diegu. Era berean, udaltzainburuarekin eta Ongizate Sailko arduradunarekin ere batzen gara aldiro, kasu bakar batek ihes egin ez diezaiegun. Ikastetxeekin, Osakidetzarekin, Ertzaintzarekin... elkarlanean ari gara eragile ezberdinekin, konfiantza giroan, biktimen behar duten babes giroa ziurtatzeko. Lan hori ez da ikusten kanpotik, baina datu eta informazio asko jasotzen dugu bide horretatik. Guk, esaterako, indarkeria matxistaren bederati kasu identifikatu genituen iaz, baina Satevira, biktimen arretarako telefono zerbitzura (900 840 111), 30 lagunek deitu zuten. Hori landu behar dugu, eta lan egin behar dugu baita ere biktima izan direnen seme-alabekin, indarkeria giroan hazi direlako eta ikusi dugulako ez dakitela harremantzen, indarkeria erabili gabe. Kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren gaiari ere heldu nahi diogu.

♦ **Kontziliazioa. Ez du ematen soluzio errazik duenik.**

Diagnostiko bat egin nahi dugu, enpresetan eta gure egunerokoan zer arazo dauzkagun azalertzeko. Martxoaren 9an, Jordi Evoleren dokumentala emango dugu Kultur Etxean, eta argazki-erakusketa bat ere osatuko dugu. Word-kafe bi ere egin nahi ditugu, eta ekintza plana diseinatzeari ekingo diogu gero. Kontu zaila da kontziliazioarena, baina heldu behar diogu eztabaida horri. Badakizu zer den tristeena? Kontziliazio neurriak ezartzen hasi direla enpresa bakan batzuetan, baina gizon gazteek eskatu dituztelako. Gauza asko daude hemen: batetik, oraindik oso txarto ikusia dago gizonen kontziliazio neurriak hartzea, eta bestetik, emakumeek hartzen dituztenean, tranpa beti hor dago: lanaldi murriztua edo eszedentzia eskatzen dute, baina murrizten zaiena soilik soldata eta soldatari lotutako onurak dira. Eskubidea egiazkoa izango bada, oinarria aldatzeko egin behar dugu lan.

## Udaberriko oporraldirako eskaintza aurkeztu dute Atxutxiamaikak eta Ludotekak batetik, eta Gaztelekuak bestetik



**Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasita Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako eskaintza prestatu dute Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak eta Ludotekak elkarlanean, Udalarekin lankidetzan. Ekintza horietan parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, eta antolatzaileek gogorarazi dute, plazak mugatuak izango direla. Ekintza bakoitzak bere prezioa izango du, eta nahi izanez gero, bi epealditan ordaintzeko aukera ere badago. Horrez gain, DSBL (AGI), DBE (RGI) eta GLL (AES) jasotzen duten familiek %70eko deskontua izango dute, eta familia ugariantzako edo bigarren seme-alabagatiko deskontua %30ekoa izango da. Interesatuek martxoaren 6tik 16ra bitartean eman beharko dute izena Elgoibarko Izarran, Ludotekan edo [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean. Lau adin tartetan banatu dituzte haurrak, eta adin tarte bakoitzera egokitu dituzte planak:**

- AINHOA ANDONEGI -

### 1. Apariketean (HH2-HH4)

Apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era izango da, 9:00etatik 13:00etara. HH2tik HH4ra bitarteko umeak parrokiako arkupeetan batuko dira, Apariketean jolasteko. Eskaintza honen prezioa 56 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek: 50,5 euro). Nahi duenak goiz txoko zerbitzua kontratatzeke aukera izango du, 7:30etik 9:00etara.

### 2. Firin-faran (HH5-LH1)

HH5etik LH1era bitarteko haurrak ere Parrokiako arkupeetan ibiliko dira Firin-faran, apirilaren 10etik 12ra eta 18tik 21era. Horrez gain, apirilaren 20an egun osoko irteera bat egingo dute 18:00ak

arte. Eskaintza honen prezioa 64 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek: 57,5 euro). Egitasmo honen ordutegia 9:00etatik 13:00etara izango da, baina adin tarte honetako umeentzako ere eskainiko dute goiz txoko zerbitzua 7:30etik 9:00etara.

### 3. Abixadan (LH2-LH3)

Maalako parkean batuko dira apirilaren 10ean, 11n, 18an eta 19an goizez. Eskaintza honek 32 euro balio ditu (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek: 29 euro). 9:00etatik 13:00etara bilduko dira, baina nahi duenak goiz-txoko zerbitzua izango du aukeran, 7:30etik 9:00etara. Apirilaren 20an, bestalde, egun osoko irteera egingo dute Bason-

dora. Prezioa 16 euroan jarri dute (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek: 14 euro).

### 4. Aldenik-alde (LH4-LH6)

LH4tik LH6rako ikasleentzako *Aldenik-alde* egitasmoa prestatu dute. Zarautzen egingo dute egonaldia apirilaren 18tik 21era, eta besteak beste, surf ikastaroa egingo dute. Baina egonaldian egingo dituzten gainerako ekintzak oraindik zehazteke daude, izan ere, gaztetxoekin eurekin adostu nahi dute programaketa. Horretarako martxoaren 24an batuko dira Kultur Etxeko sotoan, 18:00etan. *Aldenik-alde* egitasmoaren prezioa 96 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek: 86,5 euro).

### Gaztelekuaren eskaintza

Gaztelekuak bestalde, DBHko eta Batxilergoko nerabeentzako eskaintza egingo du Pazko Asterako. Batzarra egingo dute lehenengo, gazteen nahiak eta beharrak ezagutzeko, azken batean, nerabeen parte-hartzean oinarritutako eskaintza prestatu nahi dutelako. Bilera martxoaren 10ean izango da, 17:30ean.

*Iker Jausoro Murgiondo*  
eta  
*Joseba Zinkunegi Garmendia*

2017-02-26



*Zenbat egiteko  
eta zenbat bizitzeko,  
zuen irribarrea eta  
maitasuna gure  
bihotzetan betirako.*

MAITE ZAITUZTEGU


Olatz, Eneko, Julen, Aner, Eñaut eta Elsa

Familiak bihotzez eskertu nahi du une zail hauetan jasotako babesa.



*Iker Jausoro  
Murgiondo*  
2017-02-26

Aner, Eneko, Julen eta Eñauten  
Ikastolako lagunak.



*Joseba Zinkunegi  
Garmendia*  
2017-02-26

*Iker Jausoro Murgiondo*

2017ko otsailaren 26an hil zen

*Bizitzak ez digu aukerarik eman zu agurtzeko,  
baina zure irribarrea eta zurekin emandako pedalkadak  
gurekin izango dira betiko.*

Bizikletako lagunak







## Joseba Zinkunegi Garmendia

2017ko otsailaren 26an hil zen, 50 urte zituela



*Ametsekin jaio,  
ametsekin bizi  
eta ametsek eraman,  
haizea bezala aske.*

Kimetz Elkartea



## Iker Jausoro Murgiondo

2017/02/26

*Alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin,  
oroimenean izango zara  
zu beti gurekin.*



IMHko zuzendaritza,  
patronatua eta lankideak

## Iker Jausoro Murgiondo

eta

## Joseba Zinkunegi Garmendia

2017/02/26

*Neguko haizeak urdinu arren,  
Euskal Herriko mendiak  
baratzean loratuko dira  
zuek utzitako haziak.*

Elgoibarko lagunak





## 1926

100 urte bete ditu gaur C.D. Elgoibarrek, eta horren harira, erretratu zahar hau ekarri dugu aste honetan orri honetara. C.D. Elgoibarren orfeoia ageri da argazkian. 1926ko martxoaren 7ko erretratu da. Egun hartan dirua biltzeko kontzertua eskaini zuen orfeoiak. Herrian gaixorik zegoen mutil batentzako diru-bilketa egin zuten. Ignacio Bereziartua zen orfeoiaren zuzendaria, eta nahikoa meritu bazeukan talde hura zuzentzen. Izan ere, orfeoiaren kantatzen zuten mutil haietako askok, C.D. Elgoibarko futbolariak, ezer gutxi zekiten musikaz.

Egun berezia da gaurkoa klubarentzat. Mendeurreneko ekitaldien artean futbola kalera atera nahi zuten gaur, eta Kalegoen plazan hainbat futbol partida egiteko asmoa zeukaten, baina domekan Valdezcaray eski estazioan hil ziren Joseba Zinkunegi eta Iker Jausororen omenez bertan behera utzi dituzte gaurko ekitaldiak.

**OKERRAK ZUZENTZEN:** Joan zen astean argitaratu genuen erretratu zaharrean akats bat zegoen. Kartela eusten zegoen emakumeetako bat Ana Mari San Martin da, eta ez Ana Mari Beristain, guk jarri genuen bezala.



## Euskara kontuak izan dituzte mintzagai Uxue Alberdik eta Maialen Lujanbiok



**K**ultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen eguaztenean Uxue Alberdik eta Maialen Lujanbiok eskaini zuten *Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz* izenburuko saioa entzuteko. Elgoibarko Izarrak antolatu zuen saioa, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin. Bertsolaritzak, euskara hutsean pentsatzen duen jardun eta mugimendu bakaretakoa izanda, bere euskalduntasunaren kontzientzian nola eragin dion azaldu zuen Lujanbiok, eta euskara biziberrituko badugu, euskara ardatzean jartzearen premiaz mintzatu zen. Politikan eta gure eguneroko jardunean euskara, sarri, "trabatik estorbura" ikusten duela esan zuen, komunikazioaren aitzakian bigarren planoan laga ohi dugula euskara; praktikotasunaren izenean, "erazkerian" jausten garela, alegia. Euskara ardatzera ekartzeko saiakera txikienari "inposaketa" esaten diotenen eta komunikabideen errepasoa ere egin zuen, eta baita adierazkortasuna lantzeko premiaz ohartarazi. **BARRENEK** hurrengo alean argitaratuko du laburpena.

## Debabarreneko orfeoia kontzertua eskainiko du gaur, Herriko Antzokian

Debabarreneko orfeoia kontzertua eskainiko du gaur iluntzean Herriko Antzokian. Debabarreneko orkestra sinfonikoak ere hartuko du parte emanaldian, eta gonbidatu bereziak izango dira Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako eta Bergarako musika eskolako ikasleak. Guztira ehun bat lagun bilduko dira eszenatokian. Sarrerak 10 euroan jarriko dituzte salgai. Herriko Antzokiko lehiatilan bertan erosi ahal izango dira, 19:30etik aurrera.

## Edoskitzeari buruzko argazki erakusketa

Maitasunez Hazi elkarteak edoskitzeari buruzko argazki erakusketa antolatu du martxoaren 14tik 18ra, Mendaroko Ospitalearen laguntzarekin. OSI Debabarrenak edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa antolatu zuen iaz, eta lehiaketa horretan parte hartu zuten erretratuekin osatu dute erakusketa. Kultur Etxean jarriko dituzte argazkiak ikusgai. Aste barruan 17:30etik 19:30era egongo da zabalik, eta zapatuan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

## Amorantek binilozko singlea argitaratu du bi kanturekin



Amorantek (Iban Urizar Ondarza) binilozko singlea kaleratu du *Manuela* eta *Brueghel zarra* abestiek. Singlea

edizio mugatua izango da, baina bi abestiok digitalean ere badaude entzungai eta eskuragarri, Amoranteren Bandcamp orrian. Iparragirrenen *Zugana Manuela* kantua ardatz hartuta, erritmo dantzagarriak txertatu ditu Amorantek *Manuela* abestian. Autotunea bezalako efektua ahotsean darabil Amoranteren unibertsoa zabalduz. *Brueghel zarra* abestian, berriz, Jose Mari Ondarza idazle elgoibartarraren hitzek Brueghel margolari flamenkoaren mundua irudikatzen dute, abestian kantentzia berezi bat ezarriz. Manuelatxo

dantzan darabil Taksim plaza erdian, Brueghel zaharrak erretratu bat egiten dion bitartean.

Iban Urizarren bakarkako proiektua da Amorante. Aspaldiko koplak, flamenkoa, Afrikako musika eta, oro har, tradizio anitzeko musika jorratzen du, eta folkaren ildotik abiatuta, esperimentazioarako tarteak ere uzten du. Erraietatik ateratzen duena kantu bihurtzen du gitarra, ahotsa, harmonium-a eta tronpetaren laguntzaz. Cafe Teatro, Bizarra eta Andraikan taldeetan aritu da Urizar, besteak beste.



## Iñigo Lariz Euskal Herriko mendi eskiko bikotekako txapeladun Altitoy proban



Euskal Herriko mendi eskiko bikotekako podiuma.

**P**irinioetako Luz-Saint-Sauveurren (Frantzia), Altitoy Ternua lasterketaren barruan jokatu zen aurreko astean Euskal Herriko Mendi Eskiko Txapelketa. Iñigo Lariz elgoibartarrak Igor Alzelai legazpiarra izan zuen bikotekide eta txapela janztea lortu zuten. Altitoy lasterketa orokorrean, berriz, Jabi Dominguezek eta Arkaitz Iruretak osatutako bikotea izan zen Euskal Herriko bikoteen artean bigarrena, Mikel Navarro eta Juanjo Goikoetxearen atzetik. Bederatzigarren postua eskuratu zuten elgoibartarrek. Iñigo Lariz eta Igor Alzelai hamargarren postuan sailkatu ziren. B ibilbidean, bestalde, Agurtza eta Itziar Gurrutxaga ahizpa elgoibartarrak gailendu ziren emakumezkoetan.

## Berrikuntzekin dator Debabarrenako hirugarren Raida



Debabarrenako Raid probaren lehen bi edizioak irailean antolatu zituen Morkaiko mendi taldeak. Hirugarrena, baina, maiatzaren 6rako antolatu dute. Izan ere, Abenturarako Raiden Iparraldeko Ligako (LINRA gazteleraz) estreinako proba izango da Elgoibarkoa. Bigarren berrikuntza nagusia, guraso eta seme-alabek parte hartu ahal izango dutela da, horretarako sortu duten "Familiar" izeneko modalitatean. Bi ordu inguruko proba izango dela aurreratu dute antolatzaileek eta puntuak eskuratzeko hainbat joko tartekatuko dituztela ibilbidean. Orientaziorako gaitasun apalekin ere egiteko moduko proba izango dela azaldu dute, eta familiak animatu dituzte parte hartzera.

## Iñigo Lariz Gailurra Xtreme telebista saioan

Gailurra Xtreme programa emitituko du ETB1ek martxoaren 9an, 22:15ean. Berrirango Kilometro Bertikala egiten saiatuko dira saioko aurkezleak, Irati Anda eta Ibon Gaztañazpi. Beraiekin batera, Oier Ariznabarreta eta Aitziber Ibardia, esperientziadun korrikalariak joango dira laguntzeko. Iñigo Lariz eta Inma Aranburu lasterkariak ere izango dituzte atzetik, erratzaren lana egiten, presioa sartzeko.



## Kilimon Trail probako kartela aurkeztu dute

Kilimon Trail mendi lasterketaren zazpigarren edizioa jokatu da Mendaron, apirilaren 9an. Parte hartzaileek 23 kilometroko eta 1550 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea egin beharko dute. Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrian. Aurtengo proba iragarriko duen kartela ere aurkeztu dute. Felix Sanchez Arrazolaren argazkia erabili dute antolatzaileek.



## Mintxetako futbol zelaiko belar artifiziala aldatuko dute



**M**intxetako futbol zelaiko belar artifiziala jarri zutenetik 11 urte igaro dira, eta era honetako berdeguneen bizitza erabilgarria, batez beste, 8 edo 9 urtekoa izaten da. "Mantenimendu ona izan duenez, 11 urtera arte ailegatu da Mintxetako belar artifiziala, baina berritzeko beharra du", azaldu dute Elgoibarko Udaleko arduradunek. Udalak 230.000 euro erabiliko ditu lanotarako. Maiatza bukaeran hasi nahi dituzte berdegunea aldatzeko lanak, uztaile hasierarako amaituta egon daitezten. C.D Elgoibarrek Realaren aurka jokatu du Mintxetan, uztailearen 8an, klubaren mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldien baitan, eta egun horretarako berdegune berria prest egotea nahi dute.

## C.D. Elgoibarrek bertan behera laga ditu gaurko iragarrita zituen mendeurreneko ekitaldiak

C.D. Elgoibarrek 100 urte bete ditu gaur (martxoak 3), eta Mendeurren Batzordeak zenbait ekitaldi zituen antolatuta. Alabaina, Iker Jausoro eta Joseba Zinkunegiren heriotza eta dolua direla-eta, aurreikusitako ospakizunak bertan behera lagatzea erabaki dute. Jausoro C.D. Elgoibarren Futbol Eskolako entrenatzaileetarikoa bat zen.

## Benjaminentzako eskubaloi entrenamenduak martxan dira

Sanlo Eskolako benjaminetako neska-mutilentzako entrenamenduak abian dira berriz. Hilean behin edo birritan egingo dituzte entrenamendu saioak. Aurrenekoa martxoaren 12an izango da, 10:00etatik 12:00etara, IMH kiroldegian.

## Mendi eski irteera

Morkaikok mendi eski irteera antolatu du martxoaren 18 eta 19rako; Hauta-cametik Baregesera lehen egunean, eta Baregesetik Saint Laryra bigarren egun. Martxoaren 8a da izena emateko azken eguna. Joan aurreko eguaztenerako (martxoak 15) elur-jausi arriskuen kudeaketari buruzko hitzaldia ere antolatu dute. Kultur Etxean izango da, 19:00etan, eta Jon Apodakak, Elur eta Elur-jausien Ezagupenerako Elkarteko kideak, eskainiko du. Hitzaldi horrek mendiaren neguko arriskuez kontzientziatzea du helburu eta publiko guztientzat zuzenduta dago.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Haundi 0 – Beti Gazte 3 (Oho. erreg.)  
 Usurbil 1 – Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Elgoibar 2 – Bergara 3 (Oho. kad.)  
 Lagun Onak 6 – Elgoibar 1 (Inf. 1. maila)  
 Lagun Onak 4 – Elgoibar 3 (Infantil Txiki)

### ARETO FUTBOLA

Graccurre 2 – Concepto Egile 2 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Trapagaran 30 – Alcorta F.G. 13 (Senior giz.)  
 Urduliz 35 – Beristain Elg. 32 (Kub mut.)  
 Kukullaga 22 – Tecnifuelle 28 (Jub. nesk.)  
 Urkunde 31 – Usurbil 31 (Kad. mut.)  
 Ereintza 30 – C. Astigarraga 30 (Kad. nesk.)

## Agenda

### ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 5  
 12:30 Concepto Egile – Aurrera Vitoria

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4  
 16:30 Haundi – Hondarribia (Oho. erreg.)  
 18:30 Elgoibar – Zumaiako (Oho. jub.)  
 Domeka, 5  
 11:00 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb.)  
 16:00 Elgoibar – Gure Txokoa (1. erreg.)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 4  
 10:00 Txarriduna – Arrasate (Inf. mut.)  
 11:15 Bacalaos Alcorta – Bidasoa (Inf. nesk.)  
 12:30 Cometel Elg. – Tolosa (Kad.nesk.)  
 17:45 Lauko – Kukullaga (Senior emak.)  
 19:30 Alcorta F.G. – Bidasoa (Senior giz.)  
 Domeka, 5  
 10:00 Urkunde – Pulpo (Kad. mut.)  
 11:30 Salento – Ormaiztegi (Senior giz.)



**LANA.....**  
**Eskaerak**

luzila da nire izena eta adinekoak zain-  
tzen egingo nuke lan. Esperientzia dau-  
kat. ☎ 658 747 099

Gizona eskaintzen da adinekoak zain-  
tzeko. Esperientziaduna.  
☎ 635 005 536

Adinekoak zaindu eta eteko garbiketa  
lanak egingo nituzke. Orduka zein in-  
terna moduan. ☎ 605 402 030

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa  
lanak egiteko prest nago.  
☎ 632 436 462

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest  
nago. Goizez. ☎ 632 784 360

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest  
nago. ☎ 632 947 212

Asteburuetan adinekoak zaintzeko eta  
eteko lanak egiteko prest nago.  
☎ 626 435 491 (Idoia)

Emakume arduratsua, erreferentzia onak  
eta esperientzia handia. Adinekoak  
zaintzeko eskaintzen da. Ordu-tegi mal-  
gua. ☎ 631 907 807

Adinekoak zaintzeko eta eteko lanak  
egiteko prest nago. Esperientzia handia.  
☎ 681 065 683

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta  
garbiketa lanak egiteko prest nago. Es-  
perientzia handia. ☎ 680 808 125

Asteburuetan lan egiteko prest nago.  
Adinekoak zainduko nituzke. Esperien-  
tzia eta erreferentziak ditut.  
☎ 648 039 187

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna  
moduan ere. Esperientzia handia eta  
erreferentziak ditut. ☎ 631 613 245

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria  
laguntzailea naiz. Ordu-tegi malgua.  
☎ 646 931 162

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak  
egiteko prest nago. ☎ 642 424 173

Garbiketa lanak egiteko prest nago.  
Baita interna moduan ere. Pertsona na-  
gusiak ere zaintzen ditut.  
☎ 631 498 697

Garbiketa lanak egiteko prest nago,  
etxeetan eta portaletan. Euskaraz egiten  
dit. ☎ 649 782 967

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan as-  
teburuetan. ☎ 651 156 456

lanerako prest nago. Esperientzia han-  
dia daukat garbiketa lanetan eta nagi-  
siak zaintzen.  
☎ 616 554 004 / 943 744 481

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Or-  
duka edo interna.  
☎ 631 212 497

11:00etatik 17:00etarako tartean lan  
egiteko prest nago.  
☎ 632 564 679

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zain-  
tzeko prest nago. Orduka.  
☎ 603 237 932

lan bila nabil. ☎ 632 639 159

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna  
ere bai. Esperientzia handia daukat.  
☎ 612 216 458 / 602 193 095

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa  
lanak egiteko prest nago. Interna ere  
bai. ☎ 631 418 130

Adinekoak zaintzeko prest nago. Or-  
duka.  
☎ 600 319 516

Jatetxeetan platerak garbitzen lan egi-  
teko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 616 328 060

Adinekoak zainduko nituzke asteburue-  
tan. ☎ 631 562 461

**Eskaintza**

Eteko lanak egiteko pertsona bat behar  
dut. ☎ 656 780 748

**GARAJEAK.....**  
Garaje itxia alokatzen dut Leku Ederren,  
3. sotanoan. Ate automatikoa dauka.  
☎ 943 740 459 / 639 882 219

**ETXEBIZITZAK.....**

**Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar-  
ren. ☎ 631 212 497

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke  
alokairuan. ☎ 688 723 121

**BESTELAKOAK.....**

Joan zen domekan Urtiatik jaisten ari zen  
txirrindulari batek Polar markako GPSa  
galdu zuen. Aurkitu duenak eraman de-  
zala mesedez Udaltzaingora.

☎ 665 733 341  
Zarautz eta Elgoibar arteko joan-etorria  
auto berean egiteko pertsona baten bila  
nabil.  
☎ 653 497 999 (Susana)



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**Bigarren eskuko etxebizitza erosi nahi dut, eta jakin nahiko nuke zeintzuk neurri hartu beharko nituzkeen, badaezpada.**

Bigarren eskuko etxea erosteko orduan, komeni da honako hauek kontuan hartzea:

- Etxea saltzen duena etxe-jabea bera izatea.
- Kontribuzioan ordainketa guztiak eginak dituela egiaztatzea.
- Etxe horrek bestelako kargarik ez duela egiaztatzea.
- Salgai dagoen etxebizitza horren jabeak komunitateari ezer zor ez diola egiaztatzea.
- Komunitateko estatutuak aztertzea.
- Etxebizitza dagoen lekua aztertzea, hiri-ordenamendutik kanpo ez dagoela egiaztatzeko eta inguru horretan hirigintzari lotutako espedienteren bat zabaldu ote duten ikusteko.
- Babes Ofizialeko etxea baldin bada, komeni da aztertzea ea saltzeko ordurako gehienezko salneurri bat ezarrita dagoen, eta era berean, ondo aztertzea Babes Ofizialeko etxea izateari lotutako baldintzak egokiak zaizkigun.
- Egiaztatu erosi nahi dugun etxe hori ez dagoela alokairu-kontratu bati lotua.

**AHOLKUA: Alor guzti horiek zaindu behar ditugu erosi nahi dugun etxearen benetako egoera zein den ezagutzeko. Horiek eginda bakarrik jakingo dugu etxebizitza horrek mugarik daukan edo nahi ez dugun zerbaiteara lotuko gaituen.**

**ROSA Mª PINTADO:** *Etaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*







Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Maialen!** Atzo 5 urte egin zenituen eta oso ondo pasatu genuen ospakizunean. Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Duna!** Aittita Jose eta amama Carmen partez.



Zorionak, **Paul!** Gure etxeko piratak 6 urte bete dituzte! Muxu bat denon partez.




Zorionak, **Junes,** 7 urte egingo dituzte. Kandelak prest ditugu biharko! Ondo pasa! Muxu pila bat Einerren partez.



Zorionak, **Haritz,** hilaren 28an 6 urte egin zenituelako. Iraultza, Oihan, Sugar eta Harrieten partez, muxu erraldoi bat.



Zorionak, **Iker,** pilotari! Bihar 10 urte jada!! Muxuak etxekoan eta batez ere Oierren partez.



Zorionak, **Oinatz eta Itxaso,** domekan 4 urte egingo dituzuelako. Ondo pasa eta mila muxu familiako guztien partez.



Zorionak, **Victor,** otsailaren 27an 8 urte egin zenituelako. Familiakoan partez, muxu bat.

RPS 16812

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**VARILUX 40**

Mugarik gabeko ikusmena momentuan

**IRAULTZA BERRIA  
LENTE PROGRESIBOETAN**

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## 3 BARIXAKUA

**20:30** Kontzertua: Debabarreneko orfeoi. Herriko Antzokian. Sarrera, 10 euro.

**21:30** Zine forum-a. Haizeak antolatuta, *Los limoneros* filma landuko dute, Loredi Salegirekin. Kafea hartuko dute lehengo, eta filma 22:00etan hasiko da.

## 6 ASTELEHENA

**19:00** Erakusketa: *Berdintasuna eta maskulinitate berriak*. Udaleko Berdintasun Sailak eta Emakumeen Kontseiluak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 17ra arte egongo da ikusgai.

**21:30** Zine forum-a. Haizeak antolatuta, *Los limoneros* filma landuko dute, Loredi Salegirekin. Kafea hartuko dute lehengo, eta filma 22:00etan hasiko da.

## 7 MARTITZENA

**19:00** Helduentzako ipuin kontalaria: Hotzikara, ipuin erotikoak. Ines Bengoa ipuin kontalariarekin. Udal Liburutegian.

## 8 EGUAZTENA

**19:00** Emakumeen Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

**Segidan**, Martxa Morea. Kalegoen plazan hasiko da.

**19:30** *Espeleologia Italian eta sagu zahar gorotz bila Bulgariara*. Zientzia eta mendia uztartzeko zikloa antolatu du Morcaikok, eta horren barruan hitzaldia eskainiko dute Martin Arriolabengoak, batetik, eta Antton Elberdik eta Eñaut Izagirrek, bestetik.

## 9 EGUENA

**19:00** Dokumentala: *El milagro de conciliar*. Udalaren Berdintasun Sailak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:00** Mahai ingurua. Justo Arriolaren liburuaren aurkezpena eta heroinak Elgoibarren izan zuen eraginari buruzko mahaingurua. Errotatzok eta Gazte Asanbladak antolatuta, Kultur Etxean.

## 10 BARIXAKUA

**20:30** Antzerkia: *Sarean kateatuta, Nomofobikak*. Herriko Antzokian.

### LANEAN HASI BERRIA NAIZEN GAZTE BAT NAIZ. ZEIN DA AURREZTEKO PRODUKTURIK EGOKIENA?

Lehenbizi, esan behar da ez dagoela dezentzat egokiena den bide bakarra. Batentzat egokia izan daitekeena, beste batek agian ez du ontzat joko, espektatiba desberdinak dituelako.

Halere, hurrengo urteetan etxebizitza bat erostea helburutzat izanda (gazte askoren helburua), etxebizitza aurrezki kontu bat irekitzea izan daiteke egokiena. Bertan egindako ekarpenak %18ko dedukzio fiskala daukate errentan, eta urtero 8.500 eurora arte sartu daitezke. Beraz, ogasunak urtero 1.530 eurora arte itzuli ahal dizkigu. Gero etxea erosi-ko ez bagenu ez legoke isunik, ogasunak eman digun dirua itzuli beharko genuke.

Gazte batzuk behar ez duten dirua pentsio planetan aurrezteara erabakitzen dute (ziurrenik norbaitek gomendatuta). Gure ustez, ez da gazte batentzat produktu egokiena. Izan ere, egindako ekarpenak ezin dira hamar urtetan ikutu eta bertan aurreztutako dirua baliteke etxebizitza erosteko orduan ezin erabili izatea.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoko honetara: [galderak@bankoia.es](mailto:galderak@bankoia.es)



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**09:00 - 22:00**

- 3 Barixakua ETXEBERRIA
- 4 Zapatua FERNANDEZ
- Goizez, ETXEBERRIA
- 5 Domeka FERNANDEZ
- 6 Astelehena YUDEGO
- 7 Martitzena ORUESAGAST \*
- 8 Eguaztena BARRENETXEA
- 9 Eguena IBAÑEZ \*
- 10 Barixakua GARITAONANDIA \*

**20:00 - 22:00**

- \* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:
- BARRENETXEA (Elgoibar)
- Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

**22:00 - 09:00**

- MANDIOLA (Eibar)
- San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
- Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)
- Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Zinea (Herriko Antzokian)

### 'Passengers'

- 11 zapatua: 19:00 / 22:15
- 12 domeka: 19:00
- 13 astelehena: 21:30



### 'ORM, elurretako erresuman'

- 12 domeka: 16:30



### 'María y las demás'

- (Ongarri zinekluba)
- 16 eguena: 21:30



**Iker Jausoro  
Murgiondo**  
2017-02-26

***Ez agurrik, ez adiorik,  
gero arte bakarrik.***



C.D. Elgoibar



**Joseba Zinkunegi  
Garmendia**  
2017-02-26



FOTOIOSU\_PHOTOGRAPHY\*



Iosu Juaristi

## Ainhoa Lendinez



Este behin Pirinioetan bizitakoarekin ametsetan nentorren etxera igande iluntzean: elurraren zuria, zeruaren urdina, mendi amaigabeen ederra. Eta hari guztiari begira, ni. Pribilegiatu sentitu nintzen, eta bakar. Andoni Areizagarekin oroitu nintzen; nola maite zuen elurra, nola mendiak, nola sortu zuen mundu bat Altitoyrekin, eta nola joan zen orain urte batzuk errepide istripuan. Mendien baino handiagoa baita arriskua errepidean... Pentsamendu horietan murgilduta nintzela, izotz bihurtu zitzaidan elur zuria. Nola ulertu nik gozatutako mendi zurituetan betiko geratu zirela Joseba eta Iker. Izoztu dira asteon Eibar, Oñati eta Elgoibar: ehunka senide eta lagun, min ematen duen isiltasunean bat eginik; besarkada amaigabeak; hozkirria; begi agortuak, gorrituak, isurtzeko malkorik ere ez daukatenak; urrunean galtzen diren begiradak. Horrela joan dira asteo egunak. Eta martxoak hiru ditu gaur, 36 urte beteko zituen gure Leirek biziko balitz. Joan zitzaigun hura ere, eta hala ere bizi da, maite zuten lagun eta senideetan bizi da. Berdin biziko dira hemendik aurrera Joseba eta Iker. Besarkada amaigabe bat lagun eta senideei, Olatzi eta Elsari. Pentsa dezagun bi izar gehiago dauzkagula eguneroko bidea argitzen.

*“Nola ulertu nik gozatutako mendi zurituetan betiko geratu zirela Joseba eta Iker. Izoztu dira asteon Eibar, Oñati eta Elgoibar”*



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

Marka guztietako  
gurpiletan  
deskontuak!



www.garajesgarcia.com

g.garcia@garajesgarcia.com

Erakusleak: 943 820 697

Kontuegia: 943 202 214

943 127 271

7.000 €



CITROEN BERLINGO FURGON 1.6 HDI

Motorra: 1.6cm3 HDI Diesel

Km: 42.000

Egoera: erabilia

13.000 €



FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI

Motorra: 2.0cm3 TDCI Diesel

Km: 80.000

Egoera: erabilia

11.000 €



BERLINGO MULTISPACE 1.6 HDI

Motorra: 1.6 cm3 HDI DIESEL

Km: 60.000

Egoera: erabilia

10.000 €



CITROEN DS3 1.6 VTI SPECIAL

Motorra: 1.6cm3 VTI Gasolina

Km: 115.000

Egoera: erabilia

14.000 €



VW GOLF 1.6 TDI CR RMI BUSINESS

Motorra: 1.6 cm 3 TDI Diesel

Km: 90.000

Egoera: erabilia

19.750 €



HONDA CRV ELEGANCE

Motorra: 1.6cm3 IDTEC Diesel

Km: 40.000

Egoera: erabilia

Prezio guzti hauek finantzatutik daude.



- Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Hego Euskal Herrirako lan egingo duen komertzial teknikoa behar dugu.
  - Baldintza ekonomikoak, erakutsitako balioaren arabera.
  - Enpresako autoa.
  - Baloratuko da euskara eta ingeles maila handia izatea.
- Bidali curriculumak [quintana@murrplastik.es](mailto:quintana@murrplastik.es) helbidera.



MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

Jon Aranoa  
Guillermo Torres  
**Elgoibar Albaitaritza**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerik ostalera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larribatak: 11:00 - 13:00

Isapaindegi zehatza daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.

**50** *50 urte zuekin bidaiatzen*

Martxoetik aurrera gozatu eta ezagutu Erioxa Dario Busck lagunduta!  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Pol. Ind. Igartualdea, 27  
20850 Mendaro - Tel. 943 741 677  
[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)

**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo**  
**www.barren.eus** webgunean

**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
pagoerrotia@pagoerrotaiturgintza.com  
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskafnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzafte/abide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migal Urzuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
benda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

## AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



Olaso Industriegunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimare@hotmail.com



aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriegunea, 9  
20850 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albitxuri Industriegunea, 1-0/ 1-P  
943 740 547



## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

## IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

## ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Kiliman hiribidea, 1 - Mendaro  
943 530 356

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura